

hh
hik hasi

udako
topaketak
2013



Donostia

Uztailak 3, 4 eta 5

Goizez
9:00-14:00

hik hasi udako topaketak

2013ko uztailak 3, 4 eta 5

hh
hik hasi

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

Sarrea

hik hasi proiektuak hamalagarren urtez antolatu ditu **udako topaketa pedagogikoak** EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Uztailaren 3an, 4an eta 5ean, hainbat gai ei buruzko ikastaroak egingo dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko, esperimentziak trukatzeko eta hausnarketak, asmoak, ideiak, proiektuak eta berrikuntzak plazaratzeko topaleku izatea ere nahi dugu.

Bizitzen ari garen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, eta, hezitzaileen parte-hartzea errazteko, matrikula prezioa, iaz baino % 20 merkeago izango da.

Ordutegia

Goizeko 9:00etatik 14:00etara

Lekuak

Donostiako EHUKo Pedagogia Fakultatea eta Ekintza ikastola izango dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Izena aurrena ematen dutenek izango dute lehentasuna ikastaroetan.

Psikomotrititatea: sozializazio prozesuetarako hurbilketa bibentziala

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Eskoletan esandakoa: gizartean moldatu ezin diren gero eta haur gehiago daude.

Gaur egun, eskoletan, behin eta berrero entzuten dugu oso portaera zailak dituzten haurrak azaltzen ari direla.

Frustrazioa jasan ez duten haurrak.

Moldatzen ez dakiten haurrak.

Nahi dutena egiten saiatzen diren haurrak, beti berea lortzeko asmoz.

“Sintomak” azaltzen dituzten haurrak: ez hitz egin, ez egin, kasketak, haserreak, eskolara joan nahi ez izan, somatizazioak, kideekin zailtasunak...

Zerk eragin ditzake halako portaerak?

Eta gure jarrerak horien aurrean?

Zer familia motakoak dira haur horiek?

Norentzat

0-6/8 urte arteko hurrekin lan egiten dutenentzat (oraingo zenbait haurren sozializazio zailtasunak ulertzen saiatu nahi dutenentzat).

Helburuak

Eskoletan zenbait haurrengan azaltzen ari diren “sintoma berri”-etara hurbilketa egitea. Ulertzen saiatuko gara, gure erantzun pedagogikoak egokitzeke.

Gaiak

- Norberarengandik sozializaziora.

- Zentrazioetik deszentrazioa.

- Komunikaziorako bidea.

- Sormena, iniziatiba, egiteko gogoia eta mugak.

- Agresibitateetik sormenera.

- Sinbolizatzeke bidea.

Metodologia

Psikomotritzitate gelan. Eguneroko, hasieran:

- Saio bibentzialak, mugimendua eta jolasaren bitartez (proposamen irekiak).

- Saioetan: taldean eta mugimenduan, berraurriketa eta ongizate egoera sentzoriomotrizetan parte-hartu. Norberarengandik besteengana. Sinbolizaziorako bidea bizi.

- Talde handian biziutakoaren gaineko elkarriketa.

Atsedeneren

ondoren:

Planteatutako gaien buruzko elkarriketa. Hurbilketa teorikoa.

* **Alvaro BEÑARAN ARANZABAL**. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Acouturier praktikako psikomotrizista, Bergarako Psikomotritzitate Eskolako irakaslea eta Asefop-eko prestatzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Pikler-Lóczyko hezitzailea: “heziketa, zaintzatik hasten denean”

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Pikler-Lóczyren ereduaz asko ikasteko dugu. Haurra eta bere ongizatea haur eskolaren abiapuntu eta aldi berean helburu izateak hainbat hausnarketa sorrarazten digu: banako haur-garapen, -pertsonalitate eta -beharrizan maila, hezitzailearen zeregin, ordutegi, trataera, material, gelaren antolaketa, eta zerrenda luze baten ingurukoak, gutxienez. Haur-hezkuntza errotik aldarazten du-eta. Bertan zaintzailea –zaintzaileak baitira eurak eta!– astiro, jarduera bakoitzak behar duen denbora hartuta baina etenik gabe aritzen da, gelako haurtxoak banan-banan zaintzen, eta zaintza horietatik abiatzen dira geroko tar- teka-martekako hezkuntza proposamenak, jolaslekuko eta barruko espazioetan oso zorrotz aukeratutako material eta jokoen kokapen estrategikoen bitartez. Eta plazer handiz gainera, etengabe umearen lorpenaz eta bere gozamenaz disfrutatuz.

Haurraren gaitasunei erreparatuz eta hura errespetatuz hezteak birkokatze profesional sakona ekartzen du. Horren aldeak eta eman beharreko urratsak argitze aldera egingo dugu ikastaroa, eta guztion artean hainbat galderari erantzuna topatzen saiatuko gara:

1. Zelakoa da “Pikler-umea”?
2. Gure umeak “Pikler-umeak” izan daitezke?
3. Eta “Pikler-zaintzaileak” zer egiten du propio?
4. Piklerrekoak zer dira baina, zain-hezitzaileak edo hezi-zaintzaileak?
5. Zein euste-puntu ditu “Pikler zain-hezitzaileak/hezi-zaintzaileak” bere eguneroko lanean?
6. Zer egiten du eta zer ez du egiten holako zain-hezitzaile/hezi-zaintzaile batek?
7. Zelako inguruak dira honek sortu eta mantentzen dituenak, umeak ahal den autonomoen izan daitezen?
8. Nola antolatu daiteke, eredu honen arabera, haur-eskola edota gela?
9. Nola egin aurre haur-eskolan gertatzen diren aldaketei?
10. ...

Gure hausnarketa errazteko, hainbat artikulua eta bideo izango ditugu eskuragarri.

* Elena HERRAN. EHUko irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Ametsak eta entrenamendu mentala zoriontsu izateko

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den jendarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsuneak nabarmendu egiten dira: konfiantza eza, beldurrak, muga estuak, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, eta abar. Barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko du, bizitza-kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! Eta gehiago eta hobeki “produzituz”.

Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalek har dezakete parte.

Helburuak

- Kontrol mentala, PNL, Sofrologia, eta beste hainbat barru-lanketarako tresnen ezagutza eskuratu.
- Ametsak ulertu eta lantzeko tresnak ezagutu
- Gauzez zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, erabili eta garatzeko tresnak.

Gaien zerrenda

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinetsi eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (hitzaldiak, bilerak, azterketak, aurkezpenak, oposizioak, eta abar).
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, eta abar).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsak lantzeko tresnak...

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Hainbatetan, ariketa, praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan, azaldu ondoren praktikatu egingo da. Ikastaroa erabat parte-hartzailea da.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* **Urko AROZENA**. Musikeneko (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) Perkusio irakaslea, Irungo Udaleko Txistulari Taldeko Zuzendaria, Adimenaren kontrolari zuzenduriko ikastaro ugartan parte hartu du... Umiltasunez, bere burua ikaragarri maite du eta ingurukoei euren buruak maitatzen laguntzen die.

* *KOPURU MUGATUA* *

Etixerako lanak gure eskoletan

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Azken bolada honetan gure komunikabideetan etxerako lanen gaia maiz azaldu da, irakurketa desberdin batzuk azalduz. Formazioan, honen inguruan dauden elementuei buruz hausnarketa bat egingo da. Ezin dugu ahaztu eskolako errekurtsu arrunta hau sistema batean (eskolan) diseinatzeko delako, askotan beste sistema batean egiteko (familian). Honengatik, eta gure ume eta gazteengan koste handirik izan gabe, bi agente hezitzaile hauek harremanetan egon behar dute ikasle- en helburu eta konpetentziak lortzeko.

Norentzat

Irakasleriarentzat

Helburuak

- Etxerako lanei buruz hainbat puntu ezagutzea
- Eskola mailan erabiltzen diren estrategiak konpartitzea
- Irakasleen didaktikan daukan garrantzia baloratzea
- Ikasleen eragina ezagutzea
- Familien eragina ezagutzea
- Familia eta eskolaren arteko proposamen kolaboratiboak diseinatzea

Landuko diren gaiak

1. Kokapena (Historia eta legislazioa. Eskolako denbora. Irakasle, ikasle eta familien balorapenak): gai eztabaidagarria al da?

1.1. Etxerako lanen historia eta legislazioa: antola al ditzakegu?

1.2. Eskolako denbora: noiz bukatzen da eskola?

1.3. Etxerako lanak eta bere funtzionaltasuna: zer pentsatzen dute irakasleek, ikasleek eta familiak gai honetaz?

2. Etxerako lanak eskolako antolakuntzan: zer

estrategia eta errekurtsuak erabiltzen ditugu gure eskoletan?

3. Irakasleen planifikazioa (Tipologia. Denborak. Jarraipena erabiltzeko estrategiak): nola kokatzen dira etxerako lanak beren didaktikan?

4. Ikasleak eta etxerako lanak: zein eragin dute ikasleengan?

5. Familia eta etxerako lanak: zein eragin dute familiengan?

6. Familia eta eskola: zer egin dezakete familiak gai honetaz gure eskoletan?

Metodologia

Marko teoriko batean oinarrituta, ikastaro honen planteamendua dinamikoa izango da. Denon artean hainbat estrategia eta esperientzia aipatuko ditugu. Horregatik, ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* **Joxe AMIAMA**. EHUko irakaslea. *Didaktika eta Eskola Antolakuntza saila*. Irakasle eta familien formatzailea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Elkarrekin pentsatu, sentitu eta bizi: era kritiko eta sortzailean

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Umeez eta gazteek pentsamendu kritiko eta sortzailea modu esanguratsuan eraiki ahal izateko espazioak sortzen eta eskaintzen ikasi, talde-elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren metodologiaren bidez. Orainean eta etorkizunean modu arduratsuan sentitzen, pentsatzen eta elkarlanean erabakiak hartzen duten herritarrak izan daitezten.

- Zer da elkarrizketa?
- Nola sortu elkarrizketarako kontestu egokiak? Zein baliabide daude?
- Hobeto pentsatzen dugu bakarrik edo besteekin?
- Nola sentitzen gara besteen ikuspuntu ezberdinen aurrean?
- Zer esan nahi du “entzutea”-k?
- Zer da galderaren pedagogia?
- Zein komunikazio eta elkarrekintza mota sortu nahi dugu gizakion artean? Eta gure ingurune hurbilean?
- Zer dira pentsamendu-trebetasunak?

Norentzat

LHko eta DBH-ko haur eta gazteekin modu formalean zein ez formalean dihardutenentzat.

Helburua

1. Taldean besteekin pentsatzeko, komunikatzeko, ikertzeko eta sentitzeko aukerak ematea, espazio eta kontestu egokiak sortuz.
2. Ume eta gazteen pentsamendu dimentsiodunaren garapena ulertzeko giltzarriak eskaintzea, tresna praktikoak, gogoetatsuak eta sortzaileak erabiliz.

Metodologia

1. Metodologia partehartzailea eta dinamikoa: jarduera praktikoak, ludikoak eta sortzaileak.
2. Elkarrizketa eta ikerketa komunitatea.
3. Fundamentazio teorikoa.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

*Miren CAMISÓN GOIENETXEA. Haur Filosofiako irakaslea.

* KOPURU MUGATUA *

Eguneroko gatazkei nola erantzun bortxakeriarik gabe?

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Jaso logela! Itzali telebista! Mugitu, berandu goaz!

Utzi aldamenekoarekiko solasa! Ixo, eta hasi lanean! Laguna ez da jo behar! Niri ez hitz egin tonu horretan!

Sarritan, guraso eta hezitzaileok gauza bera 100 aldiz esaten dugulako inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen.

Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu ezer debekatzeko orduan, exijitzeko orduan...

“Ez” esatea kosta egiten zaigu edota gehiegitan esaten dugu.

Zailtasun asko ditugu agintekeriaren, xantaiaren eta penaren artean oreka edo erdiko neurria aurkitzeko.

Eta, sarritan, gaizki-ulertuak sortzen dira...

Igeri egiten, gidatzen, sukaldatzen ikastea normalizatzen hartzen dugu... Gure autoritateari eusten, autoritario izan gabe, eta gure seme-alabekin komunikatzen ere ikas daiteke!

Nola hitz egin gure ikasleek/seme-alabek entzun diezaguten... Nola entzun hitz egin dezaten...

Norentzat

Hezitzaileentzat, gurasoentzat eta interesa duen edonorentzat.

Helburua

- Gure hitz egiteko moduari eta horrek dituen ondorioei erreparatu.

- Marshall Rosemberg-en “komunikazio ez-bortitzaren” ereduak aurkeztu.

- Zigor, xantaia eta mehatxuen alternatibak azaldu.

- Trebatu ohiko egoeretan.

Landuko diren gaiak

- Gure ikasleak/seme-alabak gustatzen ez zaigun zerbait egiten edota esaten duenean. Nola esan benetan entzuteko? Zein muga jarri? Zer da autoritatea?

- Gure ikasleak/seme-alabak arazo bat duenean. Nola lagundu? Zergatik eta nola entzun? Nola lagundu, modu progresiboan, bere arazoak konpontzeko gai izan eta geroz eta autonomoagoa izan dadin?

- Bere jokabidea onartzen ez dugunean eta gurekin ez duenean ezer jakin nahi. Nola konpondu arazoa inork sufritu gabe? Nola egin zu errespetatua izateko, aldi berean, haurra errespetatuz?

- Gure ikasleak/seme-alabak beraien artean borrokatzen/haserretzen direnean. Esku-hartu behar da ala ez? Nola egin bitartekari lana, ulertzen lagundu eta pixkanaka beraiek beraien arazoak konpontzeko gai izateko?

- Nola lagundu gure ikasleei/seme-alabei pixkanaka-pixkanaka autonomiaren eta euren arrakastaren bidea aurkitzen?

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoaren bidez, gurasoek eta hezitzaileek eguneroko egoerak aztertu eta sakonduko dituzte. Beraz, ikastaro teoriko-praktikoa izango da.

* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogoa, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Besteak sendatzeko ahalmena

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Egunero hainbat eta hainbat arazo ikusten ditugu gure baitan eta besteengan. Medikuairen edo psikologoaren esku-hartzea beharrezkoa dela uste dugu.

Baina hori ez da beti horrela; hainbat eta hainbat arazotan badugu zereginik. Irakasleak garenez, are gehiago.

Badira hainbat ezaugarri eta teknika, eskuragarri daudenak denontzat, geure bizitzan edota besteekin erabiltzeko. Bere emaitza positiboak behin eta berriro frogatu dira.

Hasieran, geure begirada zorrotzu egin behar dugu, eta, pixka bat praktikatu gero, izugarriko gauzak ikus ditzakegu. Ez da hain zaila: *zer begiratu behar dugun jakin* behar dugu.

Bigarren pausoa: *zer behar den jakin*. Egia esateko, nahiz eta gizakia oso konplexua izan, oinarri-oinarrian oreka lortzeko behar ditugun gauzak oso gutxi dira, eta eskuragarri ditugu.

Ideiak argi eta garbi izatea funtsezkoa da, eta ideia horiek oso logikoak dira. Ikusiko dugunez, lehendabizi egonezina sentitzen dugu, eta gero, gizarte egoera edo krisia dela uste dugu.

Baina bakoitzak badu bere baitan behar dituen tresna guztiak.

Eta azkeneko pausoa, *trebeziak lortzea* da. Emozioak aldatzea lan polita da, baina gauza guztiak bezala, teoria ederra izatea ez da nahikoa. Praktikatu egin behar dugu, trebezia horiek automatikoki erabiltzeko. Eta ikasketa prozesu hori oso dibertigarria izan daiteke. Mesedez, ahantz ditzagun auto-laguntza talde negartiak. Badaude prozesu dibertigarriak, ilusioz beteak, beste ikuspegi berriak sortzen dituztenak.

Ez dugu mundua aldatuko, noski, baina gure ingurua hobetuko dugu.

Zer gertatuko litzateke jende guztiak gauza bera egingo balu?.

* Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.

* KOPURU MUGATUA *

Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Honek guztiak irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu eta gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotu (urduritasuna, lo egiteko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, eta abar).

Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeratuta daudenez, haien kontzentrazioa handitu egiten dute, lasaitasuna ezartzen, adimenaren gaitasunak bizkortzen, portaera hobetzen eta ikasketarekiko jarrera baikorra eragiten.

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikastea.
- Arnasketak nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika hauek behar diren momentuetan erabiltzen ikastea.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasten, hauek ikasleekin landu ahal izateko.
- Erlajazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikastea.

Edukiak

- Sarrera: osasuna indartzeko bost puntu.
 - Jarrera fisikoa eta bere eragina osasunean.
 - Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
 - Kontzentrazio ariketak.
 - Bisualizazio teknikak.
 - Erlajazio sakona.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio eta bisualizazio ariketak.

Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukanez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

*Marina PINTOS MARTIKORENA. Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea.

* KOPURU MUGATUA *

Hezitzaileen erronka: ikasleen heziketa

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

- Nire ikasleek hobeto ikas dezaten, zer egin dezaket?
- Irakasleen eta ikasleen artean soilik lor dezakegu lotura sendoa, ikaslearen familia-sistema aintzat hartu eta errespetatzen badugu.
- Maisu/maistrak eta irakasleok eskolara ekartzen dituztenean jabetzen gara gure ikasleek gurasoekin dituzten arazo eta gatazkez.
- Gurasoek eta irakasleek elkarrengandik asko espero dute. Norbera bere lekuan kokatzea da garrantzitsua, eta bakoitza norberari dagokiona betetzea.
- Ikaslearen heziketan asmatzeko funtsezkoa da hezitzaileak (gurasoak zein irakasleak) norabide berean joatea eta hori adieraztea ahozko komunikazioaren zein ez-ahozkoaren bidez.

Norentzat

Irakasleentzat eta gaian interesa duten hezitzaile eta gurasoentzat.

Helburuak

- Familietan zein eskoletan ematen diren egoera gatazkatsuak ulertzea
- Pertsonak eta taldeak dagokien lekuan kokatzea, hain egitekoak burutzeko
- Egun ohikoak diren zailtasunei erantzun ahal izateko, baliabide berriez jabetzea.
- Pertsonen arteko harremanetan gatazkak ekiditeko edota hauek baikorki askatzeko bideak lantzea.

Edukiak

- **Pertsonen arteko harremanetan esku-hartzen duten sistema ezberdinak: FAMILIA, ESKOLA eta GIZARTEA.**
- **Pertsonen arteko harremanetan ezinbestekoak diren ardatzak.**
- **Gatazken askapena.**

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, honen planteamendua dinamikoa izanik. Egunerokotasunean bizi ditugun gertaeren bitartez, oinarrizko gaiak sakontzeko aukera izango dugu.

*Eduardo IBARNIA ISASMENDI eta *Karmele SALABERRIA LARRAÑAGA.

Kultur aniztasunean ikastea eta irakastea: estereotipoen indarra

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Helburuak

- Eskola-testuinguruan estereotipo kulturalaz jabetzearen garrantzia.
- Estereotipoen ideia sinplistik gainditzea.
- Tresnak eta baliabideak izatea, estereotipoen gaia gelan lantzeko.
- Gelan aniztasun kulturala lantzeko estrategiak menperatzea.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko profesionalentzat.

Gaien zerrenda

- Gaiari buruzko gako-hitzak.
- Estereotipoaren kontzeptua.
- Egindako ikerketak.
- Estereotipo eta aurreiritzien adibideak identifikatzea.
- Estereotipoen sorrera, transmisioa eta eragina
- Gaiari buruzko material ezberdinen azterketa
- Identifikatzea nola gutxitu daitezkeen estereotipoak. Nola egin aurre estereotipoei, aurreiritziei eta baztertzeari.
- Nola landu estereotipoen gaia eskolan: gelan lantzeko jarduerak (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan).

Metodologia

- Partze-hartzeko metodologia erabiliko da.
- Azterketa kritikoa sustatuko da.
- Material ezberdinak erabiliko dira (ikus-entzunezkoak, material grafikoak, testuak, gelarako jarduerak...)
- Gelan aniztasun kulturala lantzeko egin daitezkeen zenbait jarduera praktikan jarriko dira (estereotipoei aurre egitekoak...)
- Sarrera **teorikoak** egin ondoren **praktikara** pasako da.

* **Blanca OLALDE LOPEZ DE ARECHAVALETA**. Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea. EHU.

Eskolako bizipenak, hizkuntza-ideologia eta jarreraren eraldatzaile

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Azken garaiotan gizartean puri-purian dauden bi gai uztartzeko ideiarekin sortu da ikas-taro hau: psikologiaren arloan uste eta jarreraren eraldaketan bizipenek eta emozioek duten eraginkortasuna, alde batetik; eta soziolinguistikaren arloan, hizkuntzari berari eta hizkuntza-komunitateari garrantzia emateaz gain, hitzuna norbanako gisa hartu eta maila indibidualean erreparatzea bestetik.

Helburuak

- Eskolako bizipenek sortutako emozioek duten garrantziaz ohartzea.
- Ikasleen hizkuntza-jarrera eta hizkuntza-ideologian eragiteko tresnak eskaintzea.

Gai zerrenda

- HIZKUNTZA-IDEOLOGIA:

- o Definizioa
- o Hizkuntza-ideologiaren funtzionamendua
- o Hizkuntza-irudimenaren eraikuntza
- o Hizkuntza-nortasuna

- HIZKUNTZA-JARRERAK:

- o Jarrerak eta jokaerak
- o Jarreretan eragiten duten aldagaiak
- o Jarrera integratzaileak

- HIZKUNTZA-IDEOLOGIA:

- o Eskola, ikasleen testuinguru
- o Atxikimenduak, loturak eta erreferenteak
- o Emozioen indarra

- HIZKUNTZA-IDEOLOGIA:

- o Ikaslearen protagonismoa ikasketa prozesuan
- o Ikasleengan sinesmena
- o Afektuzko sentipenak

* Gipuzkoako Urtxintxa Eskolako hezitzaileak.

Nafarroa-Euskal Herriko historia eta memoria historikoa

12

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

“Historiaren idazketa herri baten definizioa emateko bide hoberena da, eta gizarte baten nortasuna, neurri handi batean, interpretazio historikoaren funtzioa da, eztabaidatzen diren baieztapenak eta kontra-baieztapenak aurrez aurre jartzen diren esparrua”. (Edward Said). Historiaren interpretazioak eragin zuzena du herri baten identitatean. Baina nortasun gatazka dagoen gizarteetan oroimen historikoa eztabaidagai bihurtzen da. Iaz, Albako dukearen tropek Nafarroa inbaditu zuteneko 500. urteurrena bete zen. Nafar erresumak mendetan jasan behar izan zituen Gaztelaren erasoak, inbasioak eta presio militarra. Konkista finkatzeko gerrak 18 urte iraun zuen; baina orain arte, indar bidezko konkista beharrean, paktu adiskidetsuaren ideia sartu du indarrez Espainiako historiografial. 1512ko bataila Nafarroako erresuma baskoiaren amaiera ekarri zuen konkistetako bat da. Data hau memoria kolektiboan iltzaturik geratu da, Estatuaren, independentziaren eta subiranotasunaren galeraren erreferente bezala. Zein garrantzi du urteurren honek gaur egun? Zer nolako eragina izan du gertaera historiko hark? Ikastaro honetan Euskal Herriaren historiaren irakurketa propioa egingo da, herri bezala gure iraganak egungo egoeran izan duen eraginaz hausnartzeko.

Norentzat

Hezkuntza munduko profesionalentzat (irakasleak...), ikasleentzat, memoria historikoaren alorrean aritzen diren interesatuentzat, eta publiko orokorarentzat.

Helburuak

- Nafarroaren eta Euskal Herriaren historia ezagutzea, manipulazio historikoetatik haratago.
- Kontzeptuak argitzea: subjektu historikoa, identitatea, memoria historikoa, oroimen lekuak, herrialde honen historia interpretatzeko paradigmatik.
- Gai historikoak gaur egungo egoerara ekartzea.
- Hezkuntza ofizialak baztertua izan arren, gure errealitate historikoaren funtsean dagoen gaiari buruzko baliabide pedagogikoak eskaintzea (materialak, erreferentziak, bibliografia...).

Gaiak

- Euskal Herriaren historia.
- Orreagako bataila, Erresumaren sorrera, 1200. urteko konkista...
- Nafarroaren konkista (1512-1529).
- Memoria historikoa.
- Oroimen lekuak.
- Paradigma historikoak.

Metodologia .

Saio teorikoak eta praktikoak izango dira. Historia ofizialak lantzen ez dituen hainbat pasarteri buruzko azalpenak emango dira, memoria historikoari eta paradigma ezberdinei buruzko hausnarketa egingo da eta unitate didaktiko baten diseinua landuko da talde txikietan.

* Beñi AGIRRE (Nabarralde) euskara irakasle eta historialaria.

* Angel REKALDE soziologian doktorea eta Nabarraldeko zuzendaria.

‘Coaching’: pertsoneri zein erakundeei, XXI. mendeko

gizarteari dagokion lidergo berriko aldaketan laguntzeko entrenamendua

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Zer da

- Bizitzaren aurrean, norbere burujabetasunaren errespetutik, lidergo jarrera hartzen laguntzeko entrenamendua.
- Bakoitzaren nahiak argitzeko, gaitasunak deskubritzeko eta erantzukizunak bideratzeko jardunbiderako laguntza.
- Iparroinari, estilo eta jardunbide jakinak batera biltzen dituen entrenamendu eraginkorra.

Zertarako

- Bizitzak, bizi nahi duenez, inertziatik irten eta etengabe zentzua topatzea eskatzen digu, bai proiektu pertsonalean, bai organizazioetan, bai herri-proiektuan. Bestela, arrain hilak bezala, korronteak garamatzalako. Beraz, zentzu bila dabilenak entrenatzaile batekin errazago eta denbora gutxiagoan lortuko du.
- Pertsona eta organizazioei norbere bertsiorik onena lantzen laguntzeko.
- Bizitzari ikuspegi berri batetik begiratzen ikasteko. Erronka berriei aurre egiteko eta harreman sendoak modu eraginkorrean egiten laguntzeko.
- Bizitzan, oinarritzkoak diren zenbait kompetentzia lortzeko, entrenatzeko modu eraginkorra ikasteko: Norbera izaten ikasteko, pentsatzen eta emozioak erabiltzen ikasteko, elkarbizitzan ikasteko, komunikazio eraginkorra egiten ikasteko, ekiten eta egiten ikasteko. Guztiok, norbere berezitasunetik dauzkagun gaitasunak entrenatuz, kompetentziak lortzeko.

Norentzat

- Aldaketaren bat nahi baina zer eta nola egin argi ez daukan edonorentzat.
- Hainbat zerbitzutan aritu (hezkuntza, osasuna...) eta aldaketa intuizio bezala sentitu arren, nola egin bila dabilenarentzat.
- Lanean eta maila pertsonalean harremanak aberastu nahi dituenarentzat.
- Bizitza pertsonalari eta profesionalari zentzu bateratua eman nahi dionarentzat.

Nola

Galderen bidez norbere nahiak, erantzukizunak eta gaitasunak aurkitzen lagunduz.

“Zurkaitz” tailerra

‘Coach’ baten lehen urrea, “zurkaitz” ‘coaching’ aldaketan entrenatzeko egitarau propioarekin egiten dugu. Thomas Leonard eta John Whitmore-ren sisteman oinarrituz sortua da eta zazpi urteko eskarmentua du.

Edukiak

1. ‘Coaching’-aren aurretikoak
2. Iparroinariak.
3. Estiloa
4. Jardunbidea
5. Lanaren atzera elikatzea

* Mirari BEREZIARTUA AROZENA. Pedagogian lizentziatua. ‘Coach’ pertsonala. Zuzendari ‘coach’ erraztailearen lizentziaduna. ‘Coach’ exekutiboa. Lidergo berriko entrenatzailea. 2004tik Coachville sistemaren lizentziaduna. Coachville Euskal Herria eta coachingaldaketaren sortzailea. Euskocoach, Euskal Herri osoko ‘coach’-en elkartearen sortzailea. Ikastola proiektuan 35 urteko esperientzia.

* *KOPURU MUGATUA* *

Bideoa: editatzen ikasi, Pinnacle Studio programaren bidez

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Ikastaroan Pinnacle Studio bideo-programa ezagutzeaz gain, kamera batekin grabazio egokia nola egin ikasiko dugu. Hau da, planoaren morfologia ikusiko dugu (plano orokorra, plano amerikarra, plano erdia..., kameraren mugimenduak, fisikoak eta bere ardatzetakoak...), nola grabatu eta grabazioa nola antolatu editatzerakoan. Edizioan lagunduko gaituzten eta azken emaitza hobetuko duten atal garrantzitsuak dira.

Studio programa oso erraza da ulertzeko eta erabiltzeko, eta ideala da proiektuak eraikitzeko bideoz zein DVDz. Programa horrekin lan egiteak zera esan nahi du: lehenik bideoak, argazkiak, audioa, animazioak eta abar lortu beharko ditugula, gero bigarren fase batera pasa eta pixkanaka elementu horiei guztiei edizioaren bidez forma emateko. Horietako elementu batzuei ukitu berezia eman beharko diegu (formatua aldatuz, filtroak erabiliz, apainketak eta abar eginez). Azkenik, elementu guztiak nahasi ditugunean, nahi dugun formatura aterako ditugu, izan zinta batera, DVDra edota aurkezpen multimedia batean txertatzeko artxibo batera.

Edukiak:

Proiektuak sortzea

1. Proiektu berri bat sortu.
2. Osagaiak.
3. Antolamendua.
4. Gordetzea.

Bideoaren kaptura

1. Kaptura txartelak.
2. Konpresioa, hardware eta software bidez.
3. Kapturatzeako iturria aukeratzea.
4. Kapturatutako bideoa gordetzea.

Bideo-kanalak

1. Bideoaren stream-a kanaletan sartzeta.
2. Irudi finkoak sartzeta.

Bideoaren edizioa eta muntaia

1. Edizio erreminten erabilera.
2. Zatitzea.

3. Trantsizioak.
4. Lausotzeak.

Bideo-filtroak aplikatzea

Soinu-kanalak

Gordetzeko aukeraketa

1. Plano motak aukeratu.
2. Horien gordeketa egin.

Tituluak sortzea

1. Titularrak sortu.
2. Titularren ezaugarriak.

Proiektuak esportatzea

1. Bideoaren formatua hautatzea.
2. Fitxategira, kanpoko gailu batera edo DVDra esportatzea.

* **Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE.** Escivi, Zine eta Bideo Eskolako irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA** *

'Kamishibai' tailerra

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Ipuinak eguneroko jardunean daude irakaskuntzan, eta helburu askotarako erabitzen ohi dira. Ikastaro honetan, **ipuinak erabiltzeko 'kamishibai' izeneko teknika berezi bat ikasiko** dugu. 'Kamishibai'-a 'butai' izeneko antzetzoki txiki batean taularitzen da, eta *butaia egiten, kamishibaiak sortzen eta kontatzeko teknikak erabiltzen* ikasiko dugu.

Norentzat

Bere lan jardueran ipuinak erabiltzen dituztenentzat: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle, hezitzaileak, begiraleak, eta abar. Baita ipuinak maite eta teknika horietan trebatu nahi duen ororentzat ere.

Helburua

Aipatu teknika ikastea.

'Butai'-a egiten, 'kamishibai'-ak sortzen eta erabiltzen ikasiko dugu. Japoniatik ekarritako teknikaren bidez, ipuinak antzetzoki txiki batean taularitzen dira. Irakaslearentzat 'kamishibai'-a zeharkako bitarteko interesgarria da, eta ikasleentzat sortzaile izateko aukera da. Adinaren eta nahiaren arabera, ipuin bat sortzen; sortutakoa aukeratu; ipuinaren egitura lantzen; ahokotasuna lantzen; eta antzetzokia eta marrazkiak eginez eskulanetan trebatzen ikasiko du.

Egitaraua

- **Sarrera eta 'kamishibai'-en aurkezpena.** Ahokotasunaren tradizioa eta garrantzia: ipuinak eta 'kamishibai'-ak. Jatorria eta ezaugarriak.

- **'Butai'-a egin.** ('butai'=antzetzoki) Nola egin erraz eta merke antzetzoki bat. *Ikastaroan 'butai' bat egingo dugu.*

- **Laminak prestatu.** Testua prestatzeko proposamenak. Ikasleek 'kamishibai'-ak sortzeko oinarriko ezaugarriak. Irudien garrantzia eta eskulanetarako aholkuak. Nola antolatuta ipuina 'kamishibai'-an erabiltzeko. 'Kamishibai'-a erabiltzeko teknikak. *Ikastaroan 'kamishibai' bat egingo dugu.*

- **'Kamishibai'-a kontatu.** Kontatzeko oinarriko teknikak azaldu eta 'kamishibai' teknika berezia jorratu. *Ikastaroan egindako 'butai'-arekin sortutako 'kamishibai'-a kontatuko dugu.*

- **Egitasmo baten aurkezpena:** *Kamishibai-eb*

Metodologia

Praktikan oinarritutako lan-metodologia proposatuko da. Ikastaro honetan, 'butai'-a egin, 'kamishibai'-a prestatu eta hura kontatzeko teknikak ikasi eta praktikatuko ditugu.

* Ixabel MILLET. Kontalaria eta idazlea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Haurrentzako masajea

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Ukitu + sentitu = kokatu
 Hasieran, UKITU
 Ondoren, SENTITU eta KOKATU

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat, gurasoentzat eta, oro har, haur txikiekin ari direnentzat.

Edukia

Masajea 0 urtetik 3 urtera bitartean

- Elkarri larruazalak ukituz egoteko premia.
- Larruazalaren muga sentitzeko premia.
- Gorputz osoa larruazalaren babespean integratzeko premia.
- Hori guztia haurraren erritmoa eta premiak errespetatzen, eta haurraren larruazala, eta organoen edo segmentuen funtzionamendua (batetik heltze prozesu zefalo-kaudalean eta bestetik kaudo-zefalikoan) estimulatzen duen pertsonak emana.
- Masajea, komunikazio modulatzailen estimulazioaren bitartekaria: ikusmena, entzumena, larruazala, mimika, ahotsa, alaitasuna, eta abar.
- Erditze traumatikoaren ondoko masajea.
- Masaje reichiar zefalo-kaudala.
- Masaje shantala kaudo-zefaliko.
- Oinen masaje erreflexua.
- Masajea lehenengo egunetik bertatik.
- Masajea lehen 4 hilabeteetan.
- Masajea 4 hilabetetik urtebetera.
- Masajea eta berraseguratzeko mugimendua urtebetetik 3 urtera bitartean.
- Giro lasaia eragiten duten egoerak sortzea, helduari egoten lagunduko diotenak, haurrak ukitzeko eta aldi berean "ukitua" izateko esperientzia naturala bizitzeko, eta, elkarriketa tonikoa oinarri hartuta, besteak ematen dizkion erantzunen arabera aldatzen joateko, beti ere, haurrak dituen premietan laguntzeko jarrerarekin.

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da.

* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.

* KOPURU MUGATUA *

Krisialdirako plastika tailerra

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Murrizketak daude!

Ez dago dirurik!

Materiala oso garestia da!

Tamalez, azken urte hauetan behin baino gehiagotan entzun behar izan ditugu horrelako esaldiak, bai gure eguneroko bizitzan, baita lanean ere.

Egoera horri aurre egiteko, plastika mundutik proposamen bat luzatuko dut:

- Zergatik ez ERABILI, gure proiektuetarako, eskura ditugun MATERIAL MERKEAK edota BIRZIKLATU egunero botatzen ditugunak?
- Zergatik ez irakatsi gure ikasleei **ondo pasatu** ahal dutela haien **jostailuak egiten**?

Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzat bereziki. Adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat.

Helburuak

- Birziklatzearen garrantziaz ohartu.
- Materiala hauek ematen dizkiguten aukera zabalak deskubritu.
- Ondo pasatu eta sormena landu.
- Gure lanaren balioaz jabetu.
- Baliabide berriak ezagutu.

Metodologia

"Dena aprobeztatu ahal da". Hori izango da tailer horretako leloa.

- Jarraituko dugun metodologia **guztiz praktikoa eta dinamikoa** izango da: **eginez** ikasiko dugu **egiten**.
- Jogur poteak, kartoizko kutzak, tapoiak, xaboi poteak, koloretako zintak, plastikozko edalontziak... zakarrontzitik atera, ondo garbitu, mahai gainean ipini, sormena martxan jarri eta "tresna" berriak sortuko ditugu (apaingarriak, txotxongiloak, jostailuak, ...)
- "Tresna" horiei bizitza emango diegu, denok ezagutzen ditugun abestiekin edota asmatutako istorio laburrekin; baliogarri bihurtuko ditugu, eta ez soilik apal batean ipintzeko.

* Alazne UGARTETXEA. Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua

* *KOPURU MUGATUA* *

Espresio tailerra: sortuz sentitu, sentituz sortu

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Tailer honetan, sortze prozesua oinarritzat hartuta, emozioekin egingo da lan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, dantza, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.



Bost zentzumenen inguruan ere lan egingo da guztien garrantziaz jabetzeko asmoz. Sortzea, artea bera, sendabide bat dela zioen Joseph Beuys artistak. Haren aburuz, edonor izan daiteke artista. Sortze prozesuan norbere barrenak hustu eta hein batean emozio edo bizipen horietatik askatzen baikara.

Jung-ek zioen moduan, gizakiak sozializatze prozesuan sozialki "zuzenak" edo "egokiak" ez diren ezaugarriak eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea, Jung-ek "itzala" zeritzon horrek nahi gabean kondizionatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azaleratzeak gertatzen zaigun horren kontziente egiten gaitu; modu horretan, gure jokamoldearen zergatia azaleratu eta egoera horretan esku har dezakegu. Tailer honen helburua sormenaren laguntzaz parte-hartzailen emozio eta jokaeren kontzientzia esnatu eta norbere potentziala berreskuratzea da. Tailer honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da haurrekin lan egiterakoan. Enpatiaz lan eginez haurren emozioak, beharrak eta kezak sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu. Hitzez espresatu ezin duten hori konturatu gabe irudikatu eta azaleratzen baita sorkuntza lan orotan.

***Jasone IRIGOIEN LOINAZ.** Sortzailea (pintura, eskultura, performance). Arte Ederretan lizentziatua. Ikasketa aurreratuetan diplomatua Irudia, Teknologia eta Kulturaren alorrean. Terapia alternatiboetan titulaturia (Reiki III, Kristaloterapia, Sanazio pranikoa). Pinturako Irakaslea Espresio tailerren gidaria (haur eta helduak)

*** KOPURU MUGATUA ***

Ahotsaren erabilera egokia

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Ahots mintzatua egoki erabiltzea zenbait lanbidetan nahitaezkoa dela badakigu, baina urtetik urtera ahotsa osasuntsu mantentzea zailagoa egiten zaigu. Ohitura desegokiek eta lagungarriak ez diren inguruneek gure ahots kalitatean dituzten eraginak ez nabaritzea, norberak bere ahotsa ez ezagutzea eta teknikoki nola hobetu ez jakitea... ahots arazoak agertzen laguntzen duten faktoreak dira.

Irakaskuntza munduan bereziki, urtetik urtera disfonia kasuen kopurua handitzen ari da. Arazoari aurre egitea eta prestakuntza egokia izatea ezinbestekoak dira ahotsa osasuntsu erabili ahal izateko.

Norentzat

Ahotsa egoki erabiltzen ikasi nahi dutenentzat eta, bereziki, ahots mintzatua lan-tresna dutenentzat.

Helburuak eta edukia

- Ahotsa zer den jakitea.
- Ahotsaren ohiko osagaiak ezagutzea.
- Ahots mintzatua egoki erabiltzen ikastea.
- Norberak bere ahotsa ezagutzea.
- Ahots osasuntsuak eta patologikoak bereiztea.
- Prebentzio mekanismoak ulertzea.

Horretarako, ahotsa sortzeko eta aldatzeko behar ditugun mekanismoak ikasi eta praktikatu ditugu (arnasketa, koordinazioa, erlaxazioa, ahoskera, inpostazioa...). Disfonia zer den, nola antzeman, agertu ondoren zein bide jarraitu eta zeintzu diren prebentzio neurriak ikasiko ditugu.

Ahotsa egoki erabiltzeko burutu behar diren ariketak eta zenbait aholku teoriko-praktiko eskainiko dira.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Mirari PEREZ GAZTELU. Mediku-Foniatra. AransGiko Zuzendari Medikua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Txantxa, musika, umorea eta animazioa... Txantxarien jolasak

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Adi! Kasu! Erne guztiak! Txantxariak datoz! Jolasean, olgetan, dostetan hasteko garaia heldu da!

“Haurrak jolasa berea du”, dio esaera zaharrak, baina guk aldarrikatzen duguna da bizitzak berak dituela bere jolasa, alaitasuna, umorea eta adiskidetasuna. Eta jolasteko gure aurtengo proposamena TXANTXARIEN JOLASAK dira. Taldean abesteko eta dantzatzeko hainbat proposamen landuko ditugu jolas-ikas-taro praktikoa honen bidez.

Helburua

Kalean euskaraz jolasteko tresnak ikastea

Gai zerrenda

- Imitazio jolasak
- Jauzgailuarekin jolasean
- Taldean dantzatzeko jolasak
- Animazio-jolas erraldoiak
- Abesteko jolasak
- Abestirik gabeko talde jolasak

* Gipuzkoako Urtxintxa Eskolako hezitzaileak

* *KOPURU MUGATUA* *

Biodantza: elkarren arteko loturak sendotuz

Uztailak 3, 4 eta 5. 9:00etatik 14:00etara

Biodantza integrazio sistema da: norbera bere buruarekin, besteekin, inguruarekin. Ikastaroko hiru egunetan, hiru bizipen praktiko burutuko ditugu, eta, horiekin lotuta, hiru adineko haurrekiko esperientziak zuekin partekatu nahi ditut.

Norentzat

Elkarbizitzan eta hezkuntzan dauden interesatuentzat.

Landuko diren gaiak

- Elkartze uneak sortzeko beharra.
- Erritualak, oinarri etikoak sustatzeko uneak.
- Musika eta dantza/mugimenduaren baliabideak, nahi diren elkarbizitza edukiak lantzeko.
- Pertsonen balio ukaezinak eta etika, bizipenen bidez esperimintatzea. Balioa eman gizabanakoaren potentzialei eta haizea gatazkei.

Metodologia

Dantza librea, kontsigna batzuei jarraituz: bizitasuna, sorkuntza, afektibitatea, sentsualitatea eta transzendentziarekin zerikusia duten proposamenak. Guztiak, hausnarketa etiko eta filosofiko batekin, taldearen oinarritzko loturak emozio positiboekin eraiki behar direlakoan. Zer landu? Zer partekatu? Zer elikatu?

* **Teresa LOPEZ DE MUNAIN.** Biodantza Irakaslea, Antzezlea eta DBH eta Batxilergoan filosofia irakaslea. Azken urteotan, pedagogia arloan, hainbat adinetako ikasleekin Biodantza aplikatu duena.

** KOPURU MUGATUA **

hik hasi aldizkariaren
HARPIDETZA
50 euro urtean

- 10 aldizkari + monografikoak
- % 30eko beherapena gure materialetan
- Baliabide pedagogikoen GIDA
- % 10eko beherapena bidaietan
- Beherapen bereziak Topaketa eta Jardunaldietan

2013ko
UDAKO TOPAKETAK
Matrikula arrunta
95 euro

Harpideentzat
60 euro

www.hikhasi.com/harpidetza

hik hasiko harpide izan nahi dut

Izena..... 1. deitura.....

2. deitura Zure tel.:.....

Etxeko helbidea P. K.....

Herria.....Herrialdea.....

E-posta.....

Lantokia.....

IFZ-NAN.....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Transferentzia

Sinadura

Irakaslea

Ikaslea

Bestelakoa.....

m a t r i k u l a

t x a r t e l a

Izena eta bi abizenak.....

Etxeko helbidea.....

P.K..... Herria..... Herrialdea.....

E-posta..... Tel.

- Irakaslea Maila Ikastetxea.....
- Ikaslea Ikasketa?.....
- Bestelakoa

Zein ikastarotan hartuko duzu parte?

Gutxienez 1 eta gehienez 3 ikastaro aukera zenitzake (batean lekurik ez balego, bestean sartzeko zuzenean). Markatu lehentasunak 1, 2 eta 3 zenbakiekin.

- | | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> 1. Psikomotrizitate bibentziala | <input type="checkbox"/> 12. Nafarroa-EHko historia |
| <input type="checkbox"/> 2. Pikler-Lóczyko hezitzailea | <input type="checkbox"/> 13. Coaching |
| <input type="checkbox"/> 3. Ametsak eta entrenamendua | <input type="checkbox"/> 14. Bideoa: editatzen ikasi |
| <input type="checkbox"/> 4. Etxerako lanak | <input type="checkbox"/> 15. "Kamishibai" tailerra |
| <input type="checkbox"/> 5. Elkarrekin pentsatu, sentitu... | <input type="checkbox"/> 16. Haurrentzako masajea |
| <input type="checkbox"/> 6. Eguneroko gatazkei, nola? | <input type="checkbox"/> 17. Krisialdirako plastika |
| <input type="checkbox"/> 7. Besteak sendatzeko ahalmena | <input type="checkbox"/> 18. Espresio tailerra |
| <input type="checkbox"/> 8. Yoga eta kontzentrazio-teknikak | <input type="checkbox"/> 19. Ahotsaren erabilera egokia |
| <input type="checkbox"/> 9. Hezitzaileon erronka | <input type="checkbox"/> 20. Txantxarien jolasak |
| <input type="checkbox"/> 10. Kultur aniztasunean | <input type="checkbox"/> 21. Biodantza |
| <input type="checkbox"/> 11. Eskolako bizipenak, hizkuntza | |

m a t r i k u l a

Matrikula epea: [maiatzaren 31 arte](#).

**Aurten, % 20
merkeago**

Ikastaroen prezio arrunta 95 euro

Prezio murriztuak:

- **Hazi Hezi**ko harpideak 80 euro
- **hik hasi**ko harpideak 60 euro
- **hik hasi + Hazi Hezi**ko harpideak 50 euro
- Langabetuak 60 euro
- Harpide langabetuak 40 euro

* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

Ordainketa:

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, diru-sarrerera egin behar duzu kontu zenbaki honetan:
EUSKADIKO KUTXA 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Diru-sarrerera egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordain-agiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez badago edo ikastaroa egiten ez bada, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula www.hikhasi.com/topaketak helbidean sartuz.

Adi! Ekainaren 15ean mezu bat jasoko duzu zure *helbide elektronikoa*, Topaketen egitaraua eta dagokizun ikastaroaren xehetasunak adieraziz.

Edozein argibidetarako: 943 371 408 telefonora deitu edo
hikhasi@hikhasi.com e-postara idatzi.

Obarra: antolatzaileen esku gelditzen da programan behar diren aldaketak egitea.

Antolatzaileak



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea
**Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila**

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION